



Iberiar Limnologia Elkartearen XXIII Kongresua



AIL 2026
URA, NATURA, KULTURA

Eka. 22 - Eka. 26 2026

Kod. Z69-26

Mod.:
Aurrez aurrekoa

Edizioa
2026

Jarduera mota
Workshop

Data
Eka. 22 - Eka. 26 2026

Kokalekua
Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak
Gaztelera Ingelesa

Balio akademikoa
50 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

[CASTELLANO](#) / [EUSKARA](#) / [ENGLISH](#) / [PORTUGUÊS](#)

Iberiar Limnologia Elkarteak (AIL) 1981etik dihardu ur-masa kontinentalei—ibaiak, aintzirak, hezeguneak eta urtegiak—buruzko ikertzaileen eta kudeatzaileen arteko topaketak bultzatzen. Jardunaldi horien bidez ezagutza eguneratzea, ikerketa sustatzea eta ezagutza gizartera transferitzea dira helburu nagusiak.

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) AILen XXIII. kongresua antolatzen du Bilbon, 2026ko ekainaren 22tik 26ra.

Antolaketa batzordeak interesdunak gonbidatzen ditu limnologiaren ezagutza zientifikoaren aurrerapenetan parte hartzera eta laguntzera, bai eta ezagutza hori ingurumen- eta gizarte-kudeaketa hobetzeko aplikatzera ere.

Kongresuak honakoak izango ditu: gonbidatutako hizlariekin saio plenarioak, saio tematiko paraleloak, saio bereziak, poster-saioak, bisita teknikoak eta gizarte-ekitaldiak.

Helburuak

- Ur ekologiaren inguruan sortzen diren aurkikuntza zientifikoak komunikatzea.
- Ur ekologia gaietan lanean diharduten pertsonen arteko elkarrekintzak sustatzea.
- Ur ekologia gaietan hasi berriak diren pertsonen formakuntza.

Antolakuntza



Lankidetza



Zuzendaritza



Arturo Elozegi Irurtia

Biologian Doktore eta Ekologia Katedraduna (UPV/EHU)

Biologian Doktore, UPV/EHUko Ekologia Katedraduna Irakasle eta ikertzaile UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Ibaien ekologia ikertzen du, arreta berezia jarritz giza-jardueren ekosistema hauen egiturari, biodibertsitateari eta funtzionamenduari duten eraginei. Honela, baso-jarduerak, kutsadurak, urtegien eraikitzeak, edo zentral hidroelektrikoek duten eragina aztertzen du, Euskal Herrian zein mundu osoko beste hainbat lekutan, maila guztietako (lokaletik nazioartekora) ikerketa-proiektuei esker. Hamabost liburu, 40tik gora liburu-atal eta ehundik gora ikerketa-artikulu idatzi ditu. 90 aldizkari zientifikoetarako artikuluak epaitu ditu, eta dozena bat herrialdeentzat aritu da ikerketa-proiektuak epaitzen. Ingurumen-kudeatzaileekin elkar lanean aritzen da, ekosistema naturalak baloratzeko metodoak definitzen, kudeaketa-planak aztertzen edo errehabilitazio-proiektuak diseinatzeko eta jarraitzen.

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia